

EZKIO-ITSASO

Sagardoa eta Gaztari Buruzko jardunaldia San Telmon

12.10.12 - 01:37 - GALILEA | EZKIO-ITSASO.

Asteazkenean arratsaldean, Igartubeitiko Sagardo Asteko ekitaldien barne, Sagardoa eta Gaztari buruzko jardunaldia aurrera eraman zen San Telmo museoko jatetxean.

Igartubeiti Baserri Museoak Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearekin, Idiazabal Jatorrizko Izendapenarekin, Zerain Paisaia Kulturalakin, Bokado taldearekin eta San Telmo Museoarekin lankidetzan antolatutako jardunaldiari hasiera emanez, Jakoba Errekondok, Zerain Paisaia Kulturalako gerenteak, sagardoak Euskal Herrian duen garrantziaz, edari honek izandako bilakaeraz eta bere etorkizunaz solasaldia eskaini zuen.

Ondoren, sagar, muztio eta sagardo dastaketa komentatuari hasiera eman zioten. Guillermo Castañós enologoaren eta Unai Agirre Gipuzkoako Sagardogile Elkartearen eskutik, lau sagar mota dastatzeko aukeraz gain, bariedade ezberdinei buruzko erabileraren inguruan hitzegin zuten. Igartubeiti Baserrian goizean bertako dolarean zanpatutako sagar zukua dastatzen jarraitu zuten parte hartzaileek. Adituek hiru sagardo ezberdin eskaini zituzten dastatzeko, bakoitzaren ezaugarriak adieraziz.

Jarduera amaitzeko, Egoitz Zamora Bokado taldeko sukaldariak, Idiazabal gazta keturarekin eta ez keturarekin egindako hiru errezeta dastatzeko aukera izan zuten San Telmo Museoko jatetxera hurbildutakoek: Gazta eta karabiniero risoto-a, Ahate hanburgesa Idiazabal gaztarekin eta Irasagar zopa Idiazabal gaztarekin.

TAGS RELACIONADOS

sagardoa, gaztari, buruzko, jardunaldia, telmon

Publicidad

Decoración con estilo 70%

Tu hogar a la moda con las últimas tendencias de las grandes marcas ¡sólo en Mooimaak!

www.mooimaak.com

Quieres encontrar pareja?

Hay cada vez más parejas que se conocen en Meetic. ¿Por qué no lo pruebas? Registro gratis

www.meetic.es

Elige tu regalo con Fagor

Fagor te regala una Tabla-asar por un Horno y una Batería-cocina por una Placa Inducción

www.promocion.fagor.es/coccion

Calcula tu seguro en 2min

Tu prudencia al volante tiene premio, hasta un 40% de ahorro al contratar tu seguro.

www.genesis.es

Para poder comentar debes estar [registrado](#)

Añadir comentario

Iniciar sesión con  

Regístrate



Escriba su comentario.

La actualización en tiempo real está **habilitada**. (Pausar)

Mostrando 0 comentarios

Ordenar por: los más recientes primero

 [Suscríbete por e-mail](#)  [RSS](#)